
VILLABONA UDALAREN "AMASAMENDIA" IZENEKO 2.075.1 ZENBAKIKO HERRI ONURAKO MENDIANEGUR USTIAKETA ERABATEKO MOZKETAZ (MATARRASAZ) EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1. Ustiaketaren ezaugarriak.

1.1.Baldintza agiri hau Villabona udalaren “Amasamendia” izeneko 2.075.1 zk. herri onurako mendian1-7-A eta 1-8-B unadetan erabateko mozketaz (matarrasaz) egin behar den egur ustiaketari dagokio.



1.2. Kokapena:

Unadak: 1-7-A eta 1-8-B.
Azalera: 17,47 ha (1-7-A unada); 3,89 ha (1-8-B unada).
Espeziea: Intsinis pinua (Pinusradiata) 1-7-A unadan; haritz amerikarra (Quercusrubra) 1-8-B unadan.

1.3. Benetan dagoena:

1.380 intsinis pinu oin (*Pinusradiata*), matarrasaz (soilketaz) ustiatzeko 1-7-A unadan.
255 haritz amerikar oin (Quercusrubra) matarrasaz (soilketaz) ustiatzeko 1-8-B unadan.

1.4. Ustiaketaren bolumena:

Kalkulatutako egur bolumenak errealean dira, azalarekin, eta puntarik mehenean 7,5 cm-ko diametroa dute:

SINA0533087e-ad8d-4ddb-b107-a944ff571409

Pinusradiata: **3.010,76** (1-7-A unadan).
Quercusrubra: **281,70** (1-8-B unadan).

1.5. Tasazioa:

* Enkantearen oinarrizko prezioa: 91.075,49 € (Pinusradiataren kasuan); 6.612 € (Quercusrubraren kasuan).
* Prezio indizea: 113.844,36 € (Pinusradiataren kasuan); 8.265 € (Quercusrubraren kasuan).

BEZari dagokionean, erabilgarria den karga mota %21koa da eta prezio hauetan sartuta dago.

1.6. Produktua ordaintzeko merkataritza oinarria:

***** Esleipendunaren**arrisku edo zoriaren arabera.**

1.7. Egiteko epea:

***** 9 hilabetekontratua sinatzen den egunetik hasita.

2. Baldintza orokorrak.

Ezaugarri Teknikoen Orri Orokorrean (75.08.21eko 200 zk. E.B.O.ko 24.04.1975 Ebazpena), eta Ezaugarri Teknikoen Orri Berezian (75.08.20ko 199zk. E.B.O.ko 06.05.1975 Ebazpena) xedatutakoak beteko dira.

3. Baldintza bereziak.

3.1.Tasak**:** 803,14€.

3.2.Egurra ateratzeko bideak:

Gaur egun mendian daudenak, dauden bezalaxe. Horretarako beste edozein bide konpondu edo egin behar bada, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuari eskatu beharko zaio eta hark baimena emanez gero, errematatzaileak berak finantzatuko du. Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak behin-betiko esleipena egiten den arte bakarrik bermatuko du aterabideen egoera, eta beti exijituko du erabiltzeko moduan egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen egoera, mendia entregatu zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Zerbitzu honek ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzukizun.

SINA0533087e-ad8d-4ddb-b107-a944ff571409

3.3.Egurra arrastaka eramaten duten makinak ezingo dira erabili mozketa egiten ari den tokian Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzu honen baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzekoak diren bideetan egin beharko dutelarik.

3.4.Lanak esleitu zaizkion egur enpresak Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak emandako baimena beharko du egurra bilatu bere eskumeneko zonetan edo ezarritako pisu mugak gaindituz garraiatu behar duenerako, Gipuzkoako Errepide eta Bideen 17/1994 Foru Arauak ezarritakoaren arabera.

3.5. Esleipendunak lan egiteko erritmoak eta guneak espezie mehatxatuen presentziari egokitu beharko ditu, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuko instrukzioak jarraituz.

4. <u>Segurtasuna eta Osasuna.</u>

Kontratistak laneko segurtasun eta osasunari buruz indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, azaroaren 8ko 31/1.995 Legea, maiatzaren 30eko 773/1.997 Errege-Dekretua eta uztailaren 18ko 1.215/1.997 Errege Dekretua, lan-istripuari dagokion guztia beraren eta ez beste inoren erantzukizuna izango delarik. Kontratugile den administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen.

5. <u>Bestelako Arauak.</u>

5.1.Uneoro, Zerbitzu honetako pertsonalak emandako jarraibide eta aginduak bete beharko dira, bai mozketari dagokionez, bai beste edozein oharpideri dagokionez.

5.2.Ustiatuko den 1-7-A unadan Pinusradiata espezieko oin portzentai bat onddoek sortutako gaixotasunen ondorioz ihartuta edo erdi-ihartuta dago. **<u>Egur ustiaketaren esleidunakzuhaitz guzti hauek moztu beharko ditu, eta ahalko dumoztutako egurra lurraren gainean utzi edo menditik atera.</u>**

5.3.Markatuta dauden zuhaitz guztiak atera beharko dira, eta hori egin ezean, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak onartzen badu, moztu eta pilatu ahal izango dira, modu egokian zatitu ondoren.

5.4. Lanak burutzerakoan enpresa esleipendunaren eta Basozaintza Zerbitzuaren artean izan ditzaketen iritzi desberdinetan, azken hitza Basozaintza Zerbitzuak izango du.

5.5. Bai Administrazioaren aurrean bai partikularren aurrean esleipendunak bere gain hartuko ditu lanaren ondorioz gerta litezkeen kalteak, batipat instalazio elektrikoei eta ubideen adarrei edo hirugarrengoei eta ustiapeneko langileei eginikoak.

5.6. Basolanek irauten duten bitartean herrialde historikoan orri honetan azaltzen ez diren eginbeharrak sortuko balira, basosuteak, euriteek kaltetutako bideak egokitu beharra, landaketa berrietatik kontrolik gabeko ganadua ateratzea, eta horrelakoetan, esleipendunak Administrazioaren esku jarri beharko lituzke aipatutako ekintza horietarako beharrezko baliabideak, beti ere duen ahalmenaren arabera eta Administrazioak eskatzen dion unean.

SINA0533087e-ad8d-4ddb-b107-a944ff571409

5.7.Ustiaketaegiterakoanerrekenondokolandaretzaerrespetatuko da: baita, moztubehar den pinudiarenbarruan, berezsortutakohostozabaleenlandaretza ere. Beraz, pinuenmozketan eta arrastreankontuhandizibilibeharko da zuhaiztihoniezeragiteko.

Donostian, 2021eko ekainaren14an

4. SEKZIOKO BURUA

Sin: Iñaki Azanza

MENDIAK ETA HABITATAK KUDEATZEKO ZERBITZUBURUA

Sin: Ismael Mondragón

Eginbidea: egiaztatzen dut pleguak eta kontratazio espedientea onartua izan zela 2021eko urriaren 19ko Tokiko Gobernu Batzarraren bilkuran.

Villabonan, 2021eko urriaren 19an.

Idazkaria
Lide Gurrutxaga Urbieta

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINA0533087e-ad8d-4ddb-b107-a944ff571409**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07510***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07510***